

Susa argitaletxeak 16 aldizkari zahar bildu ditu webgunean

Ibiñagabeitia proiektua: literatura aldizkarien gordailua sarean

Ibiñagabeita proiektua jarri du abian Interneten Susa argitaletxeak. Bertan, XX. mende hondarreko euskarazko hamasei literatura aldizkari ageri dira: *Ustela, Pott, Oh! Euzkadi, Susa, Xaguxarra, Txistu y Tamboliñ, Kandela, Korrok, Igela, Ttu-Ttuá, Txortan, Porrot, Literatur Gazeta, Mazantini, Garziarena* eta *Zantzoa*.

Berez, 1975etik 2000. urtera bitartean argitaraturiko literatura aldizkariak jarri dituzte Susa argitaletxearen arduradunek sarean. Berorietan, gaur egungo idazleen aurrekariak dira. Aspaldi dira agortuak aldizkari horien aleak eta ekimen honen bidez XX. mendeko azken hogeita bost urteko aldizkari garrantzitsuenak era digitalean doan eskuratzeko moduan ditugu www.armiarma.com/andima helbidean.

Ibiñagabeitia proiektua ez da itxia, ordea, eta laster aldizkari gehiago izango dira webgunean. Adibidez, osorik euskaraz argitaratu ez zirenak, edo osorik literaturazkoak ez zirenak. Era berean, 1960 baino lehenagokoak ere baliteke sarean jartzea. Proiektuaren arduradunek ez diote uko egin egunen batean bizirik diren aldizkariak ere (*Maiatz, Idatz eta Mintz, Karmel, Egan...*) gordailuan eransteari.

Gordailuaren izenari dagokionez, Andima Ibiñagabeitia (Elantxobe, 1906-Caracas, 1967) omendu nahi izan dute Susa argitaletxeok, hau da, erbestean *Euzko Gogoa* aldizkaria argitaratzen Jokin Zaitegiri lagundu zion kultur ekintzailea.



Euskararen Berripapera zure etxean doan jaso edo ezagunen bati bidaltzea nahi baduzu, idatzi helbide honetara:

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Donostia-San Sebastián, 1
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)
Tel.: 945 01 81 16
e-posta: l-sosoaga@ej-gv.es

Euskaraz Gaztelaniaz

Izen-deiturak:

.....

Helbidea:

.....

Herria:

Kodea:

Lurraldea:

Tel.:


e-posta:

'Asterix eta Latraviata': bildumako 31. alea euskaraz

Frantzian argitaratu zen aldi berean ikusi zuen argia euskaraz Asterix eta Obelix bildumako ale berriak, 31.ak alegia: *Asterix eta Latraviata*. Lau urtez egon behar izan dute abentura berrien zain irakurleek, aurrekoa, *Obelixeln trago txarra*, 1996an kaleratu baitzen.

Munduan egundo izan den komiki-bildumarik arrakastatsuenetarik bat da Uderzo eta Goscinny egileen Asterix eta Obelix. Esaterako, kaleratu berri den zerbakiaren hiru milioi ale jarri zituzten salgai Frantzian, eta beste bost milioi, berriz, munduan zehar.

Orain dela hogeita hamabi urte argitaratu zen lehen alea eta urtero 60.000 ale inguru saltzen dituzte. Saileko hogeita hamaika aleak kontuan harturik, 300 milioi kopia saldu direla jotzen da, hau da, Tintinenak halako bi. Urteak dira euskaraz argitaratzeari ekin ziotenetik eta, egun, bildumako ale guztiak euskaraz argitaraturik ditugu.



EUSKARAREN Berripapera

sumario

- 1 • Euskara ikasteko material berriak HABEren eta euskaltegien eskutik
- 2 • **PERTSONAJEA:** Jaime Kerexeta, Elorrioren omendua
• **LABURRAK:** Hizkuntza bizikidetzeta eta aniztasuna EBan Ibilaldia 2001, "Hemen da geroa"
• **AGENDA:** UEUk 25 urte aurtan
- 3 • Egonaldiak familia euskaldunetan, 2001
• 'Xagux@rrak: Donatoren tertulia': irakurketa bultzatzeko ekintza gehiago
- 4 • Ibiñagabeitia proiektua: literatura aldizkariaren gordailua sarean
• 'Asterix eta Latraviata', bildumako 31. alea euskaraz

Euskara ikasteko material berriak HABEren eta euskaltegien eskutik

Euskaltegiek prestatutako ikasmaterial berri hauek Kurrikulu berriaren bidetik datoz

Indarrean den Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Kurrikulu berrira egokitzeko asmoz ekin zion HABEK oinarrizko ikasmaterialak sortzeari. Bide horretan, HABEK berak prestatutako materialaz gain ezinbestekotzat jo ditu euskaltegien egindakoak. Horietariko 18 aurkeztu ziren joan den maiatzean. Ikastunitate berri horien bitartez irakasteko era berria bultzatu nahi da eta horretarako prestatu dira ikasmaterialok, eredu eta bidelagun gisa.

Kurrikuluaren garapen eta hedapen orokorrari begira, HABEK material kurrikularren diseinuari ekin zion duela bi urte eta material eredu garri batzuk sortu eta argitaratu ditu euskaltegietako irakasleekin lankidetzan. Hain zuzen ere, euskaltegien partaidetza eta lankidetzeta hori areagotzeko asmoz 2000ko uztailearen 28an, HABEK ebazpen bidez euskaltegi guztiei materialgintza-proiektuan parte hartzeko gonbitea egin zien ikastunitateak diseinatu eta gauzatzeko aukera emanez. Horretxan emaitza dira aurkeztu diren ikastunitateak.

Euskalduntze-alfabetatzearen mailak

Ikasmaterial berriok Helduen Euskalduntzerako indarrean dauden hiru mailak jorratzen dituzte, honako komunikagaitasuna lortze bidean:

Lehen maila gainditzean ikaslea gai izango da eguneroko harremanetan gertatzen diren elkarrizketak txukun burutzeko, gatzelaniara jo beharrik izan gabe. Testu idatzi laburrak oinarrizko koherentziak ulertu eta idazteko ere gai izango da. Orain arteko seigarren urratsaren parekoa da

Bigarren mailan aurrekoan jasotako trebetasunetan sakontzen eta barneratzen joango da ikaslea, baita hizkuntza ekoizpena –bai ahoz eta bai idatziz– areagotzen ere. Gai izango da edozein adierazpen deskriptibo erraztasunez egiteko. Orain arteko 9. urratsaren baliokidea da.

Hirugarren maila EGA agiriak eskatzen duen mailaren parekoa izango da. Ikaslea gai izango da kultura orokorraren mailan edozein euskal hizketa



ZALDIERO

ulertzeko, baita zuzentasunez, egokitasunez eta aberastasunez komunikatzeko ere. Saiakera arruntak, ipuinak, nobelak, etab. ulertuko ditu; gutunak, artikulak laburrak, testu errazak eta antzekoak ere idazteko gai izango da.

Hamabi euskaltegi hemezortzi ikastunitate

Guztira 18 ikastunitate prestatu dituzte deialdian parte hartu duten 12 euskaltegi horiek: Gernikako Aita Villasante Udala Euskaltegia, Beasaingo Udala Euskaltegia, Debabe Udala Euskaltegia, Deustuko Unibertsitatearen Euskal Irakaslegoa, Lizardi AEK Euskaltegia, Hernaniko Udala Euskaltegia, Legazpi 6 Euskaltegia, Matiko Troka Euskaltegia, Portugaleteko Udala Euskaltegia eta Sestaoko Udala Euskaltegia.

HABEK hiru epealditan emango ditu argitara 18 ikastunitate horiek. Orain zortzi ikastunitate argitaratu ditu, irailean beste lau kaleratuko ditu eta abenduan gainerantzekoak. Ikastunitate horiei dagozkien bideoak ere hurrengo aleekin batera izango dira eskura. Eta ikasmaterial hauek guztiak HABENETeko biltegi birtualean, irakasleen gunean (www.habe.org) jarriko dira era elektronikoan.

Bestalde, maiatzaren 3an eman zen argitara EHAAn materialgintza-proiektuan parte hartzeko aurtengo deialdia (2001eko apirilaren 9ko Ebazpena) eta bertan parte hartzeko gonbitea egin zaie euskaltegi guztiei.

Laburrak

Hizkuntza bizikidetzeta eta aniztasuna EBan



"Hizkuntza bizikidetzeta eta aniztasuna Europako Batasunean" izeneko saiok egin ziren Donostiako Miramar jauregian joan den maiatzaren 31n. Hiru atal nagusi izan ziren saiootan: "Kultura eta hizkuntza aniztasuna Europako Batasunean", "Europako hizkuntzak integratzen diren faktore moduan", eta "Hizkuntza aniztasunaren erronkak". Saiok hauek Hizkuntzen Europako Urtearen ospakizun ekitaldien baitan egin ziren.

Ibilaldia 2001, "Hemen da geroa"

Maiatzaren 27an Bilboko Abusu auzoan egin zen aurtengo Ibilaldia, Bizkaiko ikastolen jai handia. Eguraldi ona lagun, 100.000 lagun baino gehiago izan ziren bertan, hitzunen kontzientzia sakontzea helburu zuen "Hemen da geroa" lemapan bildurik. 1978an egin zen lehen aldiz Bizkaiko ikastolen jai eta bigarrenez hartu du aurtur Abusuk Ibilaldia, 1994an ere bertan egin baitzen. Orduko hartan "Bilbon badabil, bada Bilbon zer dabil" izan zuen lelo nagusi.



Agenda

UEUK 25 urte aurtur


Uztailaren 2tik 6ra Miarritzen eta 16tik 27ra Nafarroako hiriburuan egingo dira aurtur UEUren 25. ikastaroak, "Haritzak 25 kimu" lelopean. Zilarrezko ezteiak bitarte, ohiko irakasle eta kolaboratzaileez gain, izen eta profesional handiak izango dira Miarritzen eta Iruñean aurtur, ikastaroetan parte hartzen edo hitzaldiak ematen. Askoren artean izango dira Juan Mari Arzak sukaldaria, Pedro Miguel Etxenike fisikaria, Pello Zabala meteorologoa, Antton Olariaga marrazkilaria eta Jose Maria Satrustegi euskaltzaina.



PERTSONAJEA

Jaime de Kerexeta Elorrioren omendua


Garai batean oherrezko euskaltzain izan zen Jaime Kerexeta (Elorrio, 1918-1998) omendu zuten haren jaioterrian, heriotzaren hirugarren urteurrena bete denean. Erakusketa, hitzaldiak eta gisako ekitaldiek osatu zuten idazle, iker-tzaile, itzultzaile, musikari, etnografo eta apaizaren gorazarrezko omenaldia. Horrela eginik eskertu zitzaion Kerexetari euskararen alde eta faboretan egindako lan dena.



Jaime Kerexetak Gasteizko apaizgaitegian, Comillasen eta Burgosen ikasi zuen. Hainbat aldizkaritan idatzi zuen: *Egan*, *Euzko Gogoa*, *Oleri*, *Zeruko Argia* eta *Jesusen Biotzaren Deya*-n, besteak beste. Poema liburuak argitaratu zituen aurrena, *Orbelak* (1958) eta *Bitargi* (1959), baina erlijio-lanen sortze eta itzultzei emana bizi izan zuen: *Jesu-Kristo Gure Jauna ren Barri Ona* (1960), *Apostoluen Egiñak* (1961), *Eguroko Meza* (1963) Santi Onaindiaren elkarlanean, *Didaje* (*Amabi Apostoluen Irakaspena*) (1965), *Salmutegia* (1967), *Umeen Biblia* (1969), *Gure salbaziño egintza* (1972), *Ebanjelio alkartua* (1973), *Eliz-guraso apostolikuak* (1975), *Euskal Biblia* (1976), *Elizearen Otoitza* (1982), *Lau ebangelioak* (1988), *Kristau-gaik* (1995)...

Parroko izan zen Iurretan eta Etxebarriako San Agustin elizan. Hain zuzen, Kerexetaren omenezko oroigarria paratu zen eliza horren ondoan ekainaren 3an. Elorrioren egin zaitzen omenaldiak denboran atzera begiratzeko balio izan du. Era berean, euskarak garai zailenak bizi izan zituenean Kerexetak egindako lan isila agertarazteko ere bide eman du. Angel Maria Unamunzagak "Euskara eta eliza sasoi ilunetan" izenburupeko hitzaldia egin zuen eta Bilboko gotzain laguntzaile Karmelo Etxenagusiak, berriz, "Jaime Kerexeta eta euskara"-ren gainean jardun zuen.

Gerediaga elkarteko lehendakari den Antton Mari Aldekoa-Otaloraren arabera, Jaime Kerexetak euskaraz argitaratu zuen elizkizunetan erabiltzen zuten meza-liburua. Ondorioz, berealdiko zalaparta eragin zuen euskararen erabilera galazirik baitzegoen.



JAKIN

